

AZPEITIA / Udal Liburutegiak ipuin kontaketa saioak antolatu ditu haurrentzat

AZPEITIA. DV. Haur eta gaztetxoek liburu zaletasuna bultzatzeko Azpeitiko Udal Liburutegiak, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin, hainbat ipuin kontaketa antolatu ditu.

Ekitaldi hauek 4 urtettik 9ra bitartekoentzat izango dira eta abendura bitarteko astelehenetan egingo dira, arratsaldeko 6etan.

Ipuin kontalarien artean Pello Añorga, Lupe Lekuona, Maite Franko eta Amaia Zinzukegi daude.

Datorren astelehenean, irailaren 24an, emango zaio hasiera ipuin kontaketei. Haur Hezkuntzako 4 eta 5 urtekoentzat izango da lehen saioa. Pello Añorga ipuin kontalariak hiru ordu laurden inguruko ipuin kontaketa eskainiko du Enparan Dorretxeko haur eta Gaztetxoek liburutegian.

Pello Añorga oiartzundarra da. Irakaslea izandakoa da eta gaur egun ipuiak kontatzen ditu, batzuetan bakarrik eta musikoekin besteetan.